

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaindu behar dutenen errolda, 2019koa, jendaurrean jartzea

Arabako Foru Aldundiak igorria ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokion 2019ko errolda, eta ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 21.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, jendaurrean jartzen dira, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesdunek udaletxeko idazkaritzan dituzte eskueran agiriak, jendea hartzeko orduetan.

Ozaetan, 2019ko apirilaren 15ean

Alkatea

AFRO OLABE MARTINEZ DE ALBENIZ